

Joan Mari Irigoien

POEMA HONEK, BAINA,  
BA OTE DU AUDIENTZIARIK...?

Debekatuz eta debekatuz  
—baita musa bera ere!—  
dibertitzen dira asko  
Bele eta Belasko.

Nik, ordea, musaren musika dut maite,  
zeren askatasunarena ere baden,  
gaur egun bai bederen.

Handia da Bele, txikia Belasko  
baina nik bietara paso:  
dinbilin-danbalan,  
ea pareetan zorterik badudan...

Pareak ere ez ditut, ordea,  
ez trioa eta ez duplesak:  
are gutxiago duplexa...  
ez bainaiz, itxuraz,  
Chorrapeladako markexa...

Jokoz kanpo utzi bainaute,  
jokorik ere ez dut, jakina:  
nirea, baina, beste joko bat da jada,  
jokoa bihurtu baitut jolas,  
lekuko dut mekauden Satanas!

Hemen nago, bai, hitzekin jolasean,  
bai baitira beste musika asko,  
bele-belaskoen karranketatik aparte:  
txolarreak egiten du txio-txio,  
zozoak fiu-fiu,  
eta galeperrak poxpolin:  
uraren begian dantzan Marisorgin!

Musak alde ditut, gainera  
—muskuiluak ere bai, antza—,  
eta asma dezadan zerbait,  
ea nire aldera  
makurtzen dudan balantza:

Mus-mus,  
Etiopian jaio zen Negus!  
Mus-mus,  
euskaltegieta ehundaka andaluz!  
Mus-mus,  
patrika bete bonobus!  
Mus-mus,  
arma-ekoizlearen etxean bi obus!  
Mus-mus,  
debekuari errefus!  
Mus-mus,  
kartak erakus!

Baina elebiduna ere banaiz,  
eta bietan jolastuko naiz,  
letania batzuk osatuz,  
bareen herrian barraskiloa apaiz:

Mus-mus, *musaraña*,  
itsusia haiz alajaina!  
Mus-mus, *musculoso*,  
gora *doña Dulcinea del Toboso*!  
Mus-mus, *muslo*,  
mus-mus, izter:  
arkakusoa saltoka  
bazterrik bazter!

Horaziok ere ederki  
laburbildu zuen  
gure egoera esperpentikoa  
esaldi bakarrean:

*Parturiunt montes,  
nascetur ridiculus mus.*<sup>1</sup>

Musa debekatuz  
dibertitzen dira asko  
musde Bele eta musde Belasko,  
*¡qué asco!*

---

<sup>1</sup> Erditu dira mendiak, jaio da sagu barregarri bat